

AGERIKO BILKURA

Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an.

Maiatzaren 26an, Elantxoben izan da Euskaltzaindia. Goizean, osoko bilkura egin du Akademiak Udaletxean, eta arratsaldean, Elantxobeko Udalarekin batera, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Bizkaiko herri horretan, hiru idazle elantxobetarren omenez: Andima Ibinagabeitia, Imanol Berriatua eta Gorgonio Renteria. Hiruren omenez, San Nikolas elizaren eta pilotalekuaren arteko horman, plaka bat jarri dute bi erakundeek ageriko bilkura hasi aurretik. Honela dio plakak: «*Euskaltzaindiak eta Elantxobeko Udalak Andima Ibinagabeitia (1906-1967), Imanol Berriatua (1914-1981) eta Gorgonio Renteria (1868-1940) euskal idazle elantxobetarrei. Elantxobe, 2005-V-26*».

Bildu dira: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Bernardo Atxaga, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Henrike Knörr, Emile Larre, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ana Toledo eta Mikel Zalbide euskaltzain osak. Jose Antonio Aduriz, Jon Aurre, Gorka Aulestia, Ricardo Badiola, Luis Baraiazarra, Xabier Erdozia, Igone Etxebarria, Sebastian García Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Jabier Kaltzakorta, Pello Telleria, Patxi Uribarren, eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak eta, Amaia Okariz, Euskaltzaindiko Prentsa arduraduna eta Jon Artza Argitalpen banaketa arduraduna.

Bilkura San Nikolas elizan izan da eta Amaia Eiguren alkateak eman dio hasiera ekitaldiari. Alkate andreak esker oneko hitzak esan ditu, Euskaltzaindia Elantxobera etorri delako.

Andres Urrutia euskaltzainburuak Alkate andreaki eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari egin dion harregatik eta emandako laguntzagatik. Ondoren, omentzen diren hiru idazle elantxobetarrez gain, Ruiz de Azua'tar Andoni, *Ogoñope* (1904-1974) aipatu du, hori ere elantxobetarra. Azkenik, Andima Ibinagabeitiaren iloba den Miren Lore Mentxakaren gutun laburra irakurri du, hark Caracasetik bidalia, une honetan irakurtzeko.

Txomin Peillen: *Andima adiskidea*

Andima Ibinagabeitia adiskidea Parisen ezagutu zuen Txomin Peillenek. Harekin izan zuen harremanaz jardun du gaurko hitzaldian: zer nolako pertsona zen Andima, zer garrantzia izan zuen Txomin Peillenen beraren eta Jon Miranderen euskaltzaleta-

sunean, zelan Andima beti gauza izan zen bere adiskideen etxekoekin «harreman goxoak» mantentzeko.

Euskaraz hitz egiteko, baita idazteko ere esan zion Andimak Txomin Peilleni: «Euskararen maitasuna, han eta orduan, erakutsi zidan». Peillenek Andimaren bitartez ezagutu zuen Jon Mirande. Izpiritu zabalekoa zen Andima, Peillenen esanetan: «Hark zioen literaturan denetarik behar dela. Euskal literaturari bere sakristau usaina kendu behar zitzaiola». Horrela, Txomin Peillenen eta Jon Miranderen laguna ez ezik, «bere ideiak ez ziren» beste idazle batzuen laguna ere izan zen: Koldo Mitxelena, Aingeru Irigaray eta Jon Etxaide.

Guatemalatik bidalitako gutun batean, Euskal Herrira etortzeko gogoaz aldu bazuen ere, ez zen inoiz itzuli. «Andima Ibinagabeitiaren gorputza –esan du Peillenek– Caracasen geratu zen, baina garrantzitsuena, haren arimaren oihartzunak, euskal letretan entzunen ditugu... euskara bizi deino».

Bernardo Atxaga (Joseba Irazu): *Andimaren itzulpen bat eskuan*

Bernardo Atxagak Ibiñagabeitiaren itzultzaile lana izan du hizpide bere berbaldian: Andimaren liburu bat eskuan, Virgilioren idazlanen euskarazko bertsioa, Hark bizi izan zuen garaian kokatuta, euskarak behar besteko mailarik ez zuela ziotenei –Unamuno buru zela– aurre egitea egokitu zitzaion belaunaldia gogora ekarri du, –tartean *Orixe*, Zaitegi edota Elantxobeko idazlea bera– eta orduan betetako eginkizunaren garrantziaz ohartarazi du Atxagak: «ezin liteke euskal hizkuntzaren edota euskal kulturaren aurrerabiderik gauzatu itzul-lanaren neke eta izerdi garratzik gabe».

Bernardo Atxagak adierazi bezala, «idazle eta intelektual euskaldunek obra klasikoa itzultzeari ekin zioten; itzulpen laginak aurrea, gerra-atari hartan, Homeroren edo Cervantesen pasarte batzuenak, kasu; itzulpen osoak gero, gerra bukatu eta handik hogeit bat urtera». Virgilioren lana da horren adibide garbia, Ibiñagabeitiak egindako itzulpen bikaina, «gozo, idazkeraren kadentziagatik», zoritxarrez, beste hainbatek bezala, gerora merezi duen oihartzunik izan ez duena. Bada, beraz, berreskuratzeko harribitxirik oraindik.

Xabier Kintana: *Imanol Berriatua: euskal etorkizunaren ereile*

Imanol Berriatua «beti ikasten zebilen, beti lanean, nekatu gabe». Xabier Kintana euskaltzainak labur eta artez hitz egin du Elantxoben jaio eta Israelen hil zen gizonaz.

Xabier Kintanaren esanetan, Imanol Berriatua bi zaletasun nagusi izan zituen, gazte-gaztetandik: euskara eta munduko beste hizkuntzak, latina, grekoa, hebreera, frantsesa, ingelesa eta alemana hizkuntzak ere baitzekizkien.

Krutwig, Erkiaga, Gorostiaga, Otxolua, Akesolo eta beste euskaltzale batzuekin biltzen zen, eta azken aldiari Gabriel Arestirekin ere bai, gure hizkuntzaren egoeraz eta etorkizuneko irtenbideaz berba egiteko. Euskaltzain urgazle izendatua izan zen 1961eko abuztuaren 25ean.

Euskararen aldeko ekinaldi nagusiak *Anaitasuna* aldizkariaren inguruan egin zituen, bertako zuzentzailea izanez. Imanol Berriatuak argi ikusten zuen, euskarak, bizitzeko, munduko gainerako kultur hizkuntza guztien antzera, batasuna eta estandarizazioa behar zituela, eskolan, hedabideetan eta etorkizuneko euskal administrazioan euskaldun guztiok eredu bat izan genezan. Alfabetatzea eta euskalduntzea, biak ziren oso garrantzizkoak Imanol Berriatuaren iritziz.

1976an, Israelen izan ziren Imanol Berriatua eta Xabier Kintana, juduek etorkinei hebreera irakasten egindako aurrerakada handiaren berri zuzena izateko. «Egotaldi horretatik –azpimarratu du Kintanak– ondorio oso onak lortu ziren gure herriarentzat» (artean Euskaltzaindiaren *Hitz egin* metodoa sortu zuen). Are gehiago: benetan esan daiteke «Imanol Berriatuari zor zaizkiola, neurri handiz, gaurko pertsona nagusien euskal irakaskuntzaren oinarriak».

Igone Etxebarria: *Gorgonio Renteria idazle*

Igone Etxebarria euskaltzain urgazleak Gorgonio Renteriaz jardun du, liburu bat oinarri hartuta. Jule Renteria –Gorgonioren alabak– han-hor-hemen arakatu eta lan handia egin du aitaren idatzi gehien-gehienak batzen. Lan horiek guztiak *Izartu euskaldunak! elantxobetar baten olerkiak eta artikulua* izeneko liburuan argitaratu dituzte Labayruk eta BBK Fundazioak, *Sutondoa* bilduman. Liburuaren paratzailea Igone Etxebarria bera izan da.

Etxebarriaren esanetan, «Gorgonioren idatzietan mezua argi eta artez adierazita dago, genioa ageri dau. Gidari, maisu, aintzindari irudia indartsu erakusten dau, umorez be bai batzuetan, ironia eta hasarrea baztertu barik».

Aldizkari askotan idazteaz gain, bertso eta prosazko lan ugari idatzi zituen Gorgoniok. Bertsoak sorkuntzazkoak dira, lirikotasun eta sentimendu adierazpen handienekoak eta prosazkoak, aldiz, sorkuntza edo fikzioa baino gehiago artikulua dira, mezu ideologikoa zabaltzekoak, gehienetan euskara erabiltzearen alde eta euskaltasuna harrotasunez bizitzearen aldeko mezuak zabalduz. Hizlariak esan bezala, «Elantxobetarra izatea agiri-agirian dago testu guztietan, eta kostaldekoa ezeze itsasgizona izanda, itsasoak leku handia hartzen dau normala danez. Herria eta euskaltasuna bizi-bizirik dagoz bere idatzietan, jeltzaleen ideologiari jagokon moduan kristautasunari lotuta, Begoñako Ama Birjinarenganako debozinoaren bitartez kasurako».

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Joseba Irazu,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberrri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton
eta Mikel Zalbide euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaitan.

ohar bat egin du, *h* behar ote duen galdetuz. H. Knörrek, J. L. Lizundiak eta X. Kintanak erantzun diote, Iparraldeko eta Hegoaldeko toponimoen transkripzioa argitzeko.

Barrundia-ren azken –a horren inguruan eztabaida izan da, P. Xarritton, P. Goenaga, A. Arejita eta J. L. Lizundiaren partaidetasunaz; horretan lehengo eta oraingo lekukotasunak aipatu dira.

Zerrenda ontzat eman da.

3.2. Exonomastika: «36. araua berrikustea. Frantziako Errepublikako eskualde izen batzuk eguneratzea» onartzea. B. Oihartzabalen ustez, *Pays de Loire* eta *Ardenne* formak dira ofizialak eta proposamena ongi begiratzeko eskatu du. Berrikusi eta gero ponentziaren izenak ongi daudela egiaztatu da. Hortaz, zerrenda ontzat eman da.

3.3. Onomastika: «Arabako herri izendegia: 3. zerrenda» aurkeztea.

M. Gorrotxategik aurkeztu du, honi buruzko oharra ekainaren 16rako bidali behar direla gogoratu. P. Goenagak jentilizioak *-tar*, *-ar* atzizkiekin moldatzeko irizpi-

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; goiz alde egin behar duela eta, A. Arejitak ahala X. Kintanari utzi dio; gauza bera egin du A. Iñigok, ahala P. Salaberriri emanez.

Batzarra goizeko 9.15ean hasi da Elantxobeko Udaletxeko batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Hasierako oharra

Euskaltzainburuak, eguneko programa laburki azaldu ondoren, ongi etorria eman die Joseba Irazu «B. Atxaga» eta Mikel Zalbide euskaltzain izendatu berriei.

2. Aurreko akta onartzea. Aurreko bilkuraren akta ontzat eman da.

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Onomastika «Arabako herri-izendegia: 2. zerrenda» onartzea. A. Iñigok ez dela ohar idatzirik heldu adierazi du. P. Xarrittonek *Azparren* hitzari buruzko

dea argi jartzeko eskatu du, izen berriekin nola joka jakiteko. X. Kintanak eta J. L. Lizundiak erantzun diote. J. Haritschelharrek esan du zaila dela irizpide bakarra erabiltzea; euskaraz *baigorriar* / *arnegitar* eta erdaraz *valenciano* / *palentino* adibideak jarri ditu. Dena den, irizpideak idatzirik ekartzea erabaki da.

Alkate andrearen ongietorria

Bilkuraren erdialdean, Elantxobeko alkate den Amaia Eiguren andreak Euskaltzainei bere herrirako ongietorria egin die, hamaiketako bat eskainiz. Euskaltzainburuak, kide guztien izenean eskerrak eman dizkio, hain seme euskaltzale handiak izandako herri politean Euskaltzaindiarentzat bilkura egitea ohore eta pozgarria dela esanez.

3.4. Hiztegi Batua: «D letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea.

P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *diferitu*-tik *diozesi*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

4. Euskaltzain urgazleak izendatzea

P. Xarritonek Iparraldeko kandidatu gai izateko ziren batzuen ezetzaren arrazoiak eman ditu. Ondoren, botazioa eginda, aurkeztu diren kandidatu guztiak onatzen dira. Horien zerrenda aktaren eranskin gisa jarriko da.

5. Euskalerrria irratien arazoa

A. Iñigok Nafarroan euskal irratiei buruzko auzia zertan den azaldu du eta, ondoren, Zuzendaritzak prestaturiko adierazpen moduko testua banatu da eztabaidarako. J. Irazuk azken paragrafoa kentzea iradoki du, testua ahultzen duelako. P. Goenagak gauza bera eskatu du. M. Zalbidek beste ohar bat egin du «komunikazio tresna bihurtu dadin» pasartea aldatzeko. Euskal eta erdal testuei beste zuzenketa batzuk egin ondoren, Euskal irratien aldeko adierazpen instituzional orokorra onartu da.

6. Eskuartekoak

6.1. OEHren azken gorabeherak. Euskaltzainburuak, ekonomia eta kudeaketa arazo zehatz batzuetan J. L. Lizundia diruzainaren eta J. J. Zearreta kudeatzailearen laguntzaz, Orotariko Euskal Hiztegiko langileekin izandako lan-arazoak azaldu ditu, eskatzen zituzten kalte-ordainak zirela medio. Gaia nola eta zertan amaitu den argitu ondoren, oraingoan izandako eskarmentuaren argitan, ibilian ari diren gainerako proiektuen egoerari buruzko galderak, gogoetak eta azalpenak eman dira.

6.2. Euskal Herritar Unibertsala saria. Zuzendaritzak, jaso diren proposamenak kontuan izanik, sari honetarako Jose Maria Setien Alberro jauna aurkeztu du.

6.3. J. Haritschelharren omenaldi-liburuaz. Euskaltzainburu ohiaren omenezko libururako 28 eskabide edo proposamen jaso direla jakinarazi du A. Urrutiak.

6.4. Hilberri-txostenak. J. M. Lekuona eta P. Altunaren hilondoko biografiak ekainaren 29an, osteguna, Donostian, EUTGn, iluntzeko 7etan irakurriko direla jakinarazi da.

6.5. 2005eko Oroitidazkia. Euskaltzain guztiei batzar-karpetan 2005eko Oroitidazkiaren euskarazko testuaren ale bana jarri zaiela adierazi da.

7. Ahoz esandakoak

7.1. Ekaineko bileraz. Zaldibian eginen da ekainaren 30ean, goizean, osoko bazarra, eta arratsaldean Lardizabalen omenezko ageriko bilkura.

7.2. Banaturiko liburuak. Jon Artza Argitalpen banaketaren arduradunak eta Ricardo Badiola argitalpen eragileak euskaltzainei ondoko liburuak eman dizkiete:

- Mendaur I: *Satrustegi, ereile eta lekuko*, Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren ondorioz sorturiko bildumaren lehen liburukia, A. Iñigo euskaltzainak paratua.
- Mendaur II: *Baztango mintzoa*, Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren ondorioz sorturiko bildumaren bigarren liburukia, P. Salaburuk eta Maite Lakar laguntzaileak paratua.
- Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* bilduma: *Jean Pierre Arbelbide*, Xipri Arbelbidek paratua.
- Eusko Jaurlaritzaren *Bidegileak* bilduma: *Frantzisko Laphitz*, Oscar, Alvarez Gilak paratua.
- Mikel Zarateri iaz egindako omenaldia (DVD + CD) Lezamako Udalaren opari.
- *Neure amatxo maitia* (euskarazko gutunak) Balendin Berri-Otxoa. Paratzailea: Roman Berriozabal eta Adolfo Arejita.

Azken liburu hau dela eta, J. A. Arana Martijaren eskariz, Valentin Berriotxoaren himnoak, Azkuek eta Erkiagak eginak, argitaratzea onartu da.

Bilera eguerdiko 14,50ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Euskaltzain urgazle izendatuak*Elantxobe, 2006-V-26*

	Hautatuak
1	Alberdi Aretxederreta, Dorleta
2	Aleman Astiz, Sagrario
3	Apalategi Idirin, Ur
4	Aranbarri Alberdi, Iñigo
5	Aranberri Mendizabal, Luis Alberto «Amatiño»
6	Artola Zubillaga, Xabier
7	Bijjeska Basterretxea, Josu Koldobika
8	Bujanda Oñederra, Mikel
9	Coyos, Jean-Baptiste
10	Dufau, Agnès
11	Egaña Makatzaga, Andoni
12	Epalza Ruiz de Alda, Aingeru
13	Erdozia Mauleon, Jose Luis
14	Etxebarria Bilbao, Jose Ramon
15	Galé García, Patxi
16	Gartzia Isasti, Prudentzio
17	Gómez López, Ricardo
18	Gorrotxategi Txurruka, Joakin
19	Ibisate Lozares, Angel
20	Iturbe Barrenetxea, Jacinto
21	Iturralde Uria, Jose Mari
22	Jorajuria, Pello
23	Juaristi Galdos, Felipe
24	Kasares Corrales, Paula
25	Kruzeta Olañeta, Odile
26	Laka Mugarza, Itziar
27	Meabe Plaza, Miren Agur
28	Mintegi Lakarra, Laura
29	Mujika Etxeberria, Alfontso
30	Oregi Goñi, Eneko
31	Pérez Gaztelu, Elixabete
32	Sarraillet, Jakes
33	Soulé, Bernadette
34	Zabaleta Kortaberria, Josu
35	Zubiri Lujambio, Juan Jose